

Karaktere-kate eta zenbakiekin erlazionatutako Visual Basic-eko Funtzioak

Funtzioak	Funtzioen Espezifikazioa
Public Function Mid (ByVal <i>cadena</i> As String, ByVal <i>inicio</i> As Long, ByVal <i>longitud</i> As Long) As String	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> karaktere katetik itzuliko den azpikatea lortuko da. Sarrera: <i>inicio</i> zenbaki osoak, azpikatea hasten deneko posizioa adierazten du (non <i>inicio</i> < <i>len(cadena)</i> beteko da) Sarrera: <i>longitud</i> zenbaki osoak, <i>inicio</i> -tik aurrera lortuko diren karaktere kopurua adierazten du (non <i>longitud</i> <= <i>len(cadena)</i> beteko da) Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katearen azpikate bat itzultzen du, non azpikatea <i>inicio</i> posizioan hasi eta <i>longitud</i> adina karaktere izango ditu.
Public Function Right (ByVal <i>cadena</i> As String, ByVal <i>longitud</i> As Integer) Public Function Left (ByVal <i>cadena</i> As String,ByVal <i>longitud</i> As Integer)	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> karaktere katetik, itzuliko den azpikatea lortuko da. Sarrera: <i>longitud</i> zenbaki osoak, ezkerretik edo eskuinetik lortuko diren karaktere kopurua adierazten du Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katearen azpikate bat itzultzen du, non <i>cadena</i> -ren ezkerretik edo eskuinetik hasita <i>longitud</i> adina karaktere dituen.
Public Function Len (ByVal <i>cadena</i> As String) As Integer	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> karaktere katetik, itzuliko den luzera (karaktere kopurua) lortuko da. Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katearen luzera (karaktere kopurua) itzultzen du
Public Function Instr (ByVal <i>inicio</i> As Integer, ByVal <i>cadena1</i> As String, ByVal <i>cadena2</i> As String) As Integer	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>inicio</i> zenbaki osoak, <i>cadena1</i> karaktere katearen barruan <i>cadena2</i> azpikatearen bilaketa hasten deneko posizioa adierazten du. Sarrera: <i>cadena1</i> karaktere katearen barruan bilatzen da <i>cadena2</i> azpikatea. Sarrera: <i>cadena2</i> karaktere katea, <i>inicio</i> posiziotik aurrera <i>cadena1</i> -en existitzen den edo ez bilatzen hasten da Postbaldintza: <i>cadena1</i> karaktere katearen barruan <i>cadena2</i> karaktere katea hasten deneko posizioa bueltatzen du <i>inicio</i> posiziotik bilatzen hasita. Existitzen ez den kasuan 0 itzultzen du.
Public Function Ucase (ByVal <i>cadena</i> As String) As String Public Function Lcase (ByVal <i>cadena</i> As String)As String	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> hizki larrietara edo xeheetara bihurtuko den karaktere katea da. Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katea hizki larriz edo xeheez itzultzen du.
Public Function Ltrim (ByVal <i>cadena</i> As String) As String Public Function Rtrim (ByVal <i>cadena</i> As String) As String Public Function Trim (ByVal <i>cadena</i> As String) As String	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> karaktere katean hutsuneen tratamendua egingo da Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katea itzultzen du, ezkerretik edo eskuinetik zituen hutsuneak kenduta
Public Function Val (ByVal <i>cadena</i> As String) As Double	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>cadena</i> karaktere kateak zenbaki bat adierazten du Postbaldintza: <i>cadena</i> karaktere katea zenbaki bihurtzen du (posible den bitartean)
Public Function Str (ByVal <i>zenbakia</i> As Double) As String	Aurrebaldintza: Sarrera: <i>zenbakia</i> parametroak zenbaki bat adierazten du Postbaldintza: <i>Zenbakia</i> karaktere kate bihurtzen du
Public Function Date () As String	Postbaldintza: Ordenagailuaren eguna lortzen du EE:HH:UU formatuan
Public Function Time () As String	Postbaldintza: Ordenagailuaren ordua lortzen du OO:MM:SS
Public Function Timer () As Single	Postbaldintza: Ordenagailuaren ordua lortzen du Segundo eta zentesimatan

	SSSSS.ZZ
Public Function Sqr (ByVal <i>zenbakia</i> Double) As Double	Postbaldintza: <i>zenbakia</i> adierazpenaren erro karratua lortzen du
Public Function Fix (ByVal <i>zenbakia</i>) As Long	Postbaldintza: <i>zenbakia</i> adierazpenaren zati osoa lortzen du
Public Function Int (ByVal <i>zenbakia</i>) As Long	Postbaldintza: <i>zenbakia</i> adierazpena baino txikiagoa edo berdina den zenbaki osoa lortzen du
Public Function Rnd (ByVal [<i>zenbakia</i>]) As Single	Postbaldintza: 0 eta 1 arteko zenbaki bat zoriz lortzen du
Public Function Randomize (ByVal [<i>alearen_balioa</i>])	Zorizko zenbakiak lortzen dituenaren oinarritzkoa alea aldatzen du, emandako <i>alearen_balioa</i> parametroak duen balioa esleituz